

berria



Battit Ondikola,
lapurtarren
ordezkari bat
Eusko Label ligan
KIROLA • 17

ANDONI ORTUZAR

EAJ-REN EBB-KO PRESIDENTEA

«Ezin dugu onartu Espainiako presidente batek esatea ez dagoela Gernikako estatutua betetzerik»

EUSKAL HERRIA • 4-5

Eskumenak igortzeko «borondate falta» leporatu dio Jauralaritzak Madrili

HARIAN • 2-3



MARISOL RAMIREZ / FOKU



MUGA IREKIEN ALDE ARRAUNEAN

Hemezortzi migratzailek Bidasoa ibaia gurutzatu dute Irundik Hendaiara, Elkano Itsas Herriaren patatxean. Zirkulazio librea aldarrikatzeko ekintza bat izan da.

EUSKAL HERRIA • 6

ANDONI CANELLADA / FOKU

Hegoaldeko eraikin publiko, saltoki eta garraioek mugatu egin beharko dituzte termostatoak

Erakundeek berogailuaren eta aire girotuaren tenperatura arautuko dute.

EKONOMIA • 11

Nafarren %97,4k COVID-19aren aurkako antigorputzak garatu dituzte

Nafarroako Gobernuaren azterketa baten arabera, herritarren %62 infektatu dira.

EUSKAL HERRIA • 9

Hil egin da Tafallan AHTaren lanetan istripua izan zuen langilea

EKONOMIA • 12

Bi sexu eraso salaketaren berri eman du prefetak Baionan

Orain arte, gutxienez 24 ziztada salatu dituzte bestetan.

ERREPORTAJEA

Afixa ubela, eraso sexisten aurkako babestokien marka

UDAGIRO • 29-31

Bigarren hiruhilekoan ere hazi egin da Nafarroako BPGa, baina apalago

Barne produktu gordina %0,7 handitu da, lehenengoan baino hiru hamarren gutxiago.

EKONOMIA • 10

«Eskumenak iristen ez badira, gobernu honek arazoak izango ditu EAJrekin»

Andoni Ortuzar • EAJren EBBko presidentea

Jeltzaleak ez daude pozik Espainiako Gobernuaren jarrerarekin; Ortuzarrek dioenez, «zeken» jokatzeko ari da inbestiduran babesa eman zioten indar politikoekin.

Gotzon Hermosilla Bilbo

Alderdi guztiak ari dira prestatzen Hego Euskal Herrian aurki hasiko den hauteskunde ziklo berriko, eta EAJ ez da salbuespena. Horretaz, egungo egoera politikoaren erronkez eta beste zenbait auzitaz mintzatu da EAJren Euzkadi Buru Batzarreko presidentea Andoni Ortuzar (Abanto, Bizkaia, 1962), alderdiarentzat oso esanguratsua den data baten atarian: bihar 127 urte beteko dira EAJ sortu zenetik, eta jeltzaleek ohiko ekitaldia egingo dute Bilbon, Sabin Etxearen aurrean.

Maiatzean Nafarroako Parlamenturako bozak eta udal eta foru hauteskundeak izango dira, eta, printzipioz, Espainiako Gorteetarakoak geroago etorriko dira. Espainiako horiek aurreratzeko aukera ikusten duzue?

Guri gustatuko litzaiguke egutegi hori betetzea. Hauteskundeak dagokion garaian egin behar dira, eta agintaldiek lau urtekoak izan behar dute. Espainian ohiko bilakatzeko ari den horrek, hau da, legegaldiak laburrak izateak, ohiz kanpokoa izan beharko luke.

Asebate zaituzte Espainiako Gobernuarekin hitzartutako inbestidura itunaren bilakaerak?

Asko ez, egia esan. Espainiako Gobernu nagia eta geldo ikusten dugu akordioak betetzeari dagokionez. Abaguneari oso lotuta dago, eta, Aitor Estebanek zioen moduan, hurrengo bihurguneari baino ez dio erreparatzen, ibilbide

osoa aintzat hartu beharrean. Gurekin hitzartutako gaiak dagokionez, tantaka baino ez ditu betetzen, eta ez dugu ulertzen zergatik.

Beharbada, zuei ere interesatzen zaizuelako gobernuak irautea, eta gobernuak badakiela?

Nik uste dut bi faktore daudela. Alde batetik, azken hilabeteotan gobernuak iritsi ezinda ibili da, arazoak gainezka egin diotelako, eta tematu da neurriak bata bestearen atzetik ateratzen, egunero zerbait komunikatu beharrak itsututa. Eta, beste aldetik, jakitun ezin dugula gobernu hau erortzen utzi, horretaz baliatu da. Baina zintzoagoak izan beharko

izaten ari da bere bazkideekin, bazkideok oso eskuzabal jokatzen ari garen arren.

Alderdi Popularrean aldaketarik sumatu duzue Alberto Nuñez Feijoo presidente denetik?

Nik uste dut jakin duela Espainiako abagune politikoaren olatura igotzen, eta hainbat faktore alde izan dituela: nazioarteko egoera zailak ekarritako problemak, gobernuaren okerrak eta barne desadostasunak, eta Andaluziako bozetan izandako emaitza onak. Olatu horren gainean trebe ibili da surf egiten, baina olatu guztiak amaitu egiten dira, eta iritsiko zaio hari ere proposamenak egin eta bere ereduak zein den azaltzeko ordua.

Nik susmoa dut PP klasiko bat datorrigula; beharbada doinu lasaia batekin, ez Casadoren bezain karrankaria, Rajoyren estilora lerratuagoa, baina edukietan gogorra.

Espainiako bozetan PP garaile aterako balitz, seguru asko ez luke gehiago nahikorik izango eta babes gehiago beharko luke, Voxena itxura guztien arabera. Egoera horretan, EAJ prest egongo litzateke PPri agintaldia errazteko Vox gobernuan ez sartzearen truke?

Nahiko nuke arrisku hori uxatu ahal izateko beste boto izango bagenitu: seguru asko, talde gehiago beharko lirateke hori egin ahal izateko. Gu, printzipioz, oraingo formulei jarraitzearen aldekoak gara, baina, horretarako, jakina, gobernuak eta Sanchezek



berak erne ibili behar dute, bizen-tzutan: gizartearen aurrean sinesgarritasun eta eraginkortasun handiagoa erakutsi, eta bazkideekin enpatia handiagoz jokatu.

Espainiako Gobernuak ba al du «estatutua osorik betetzeko borondate irmoa», haren ordezkari Denis Itxasok asteon esan bezala?

Zoritxarrez, hori diskurtso politikoaren arloan baino ez dugu ikusten, ez errealtatearenean. Ez ginen gu izan egutegi hura taxutu genuenak; Espainiako Gobernuak ezarri zuen, eta ez du beté. Egia da pandemia eta beste hainbat arazo izan ditugula, baina, borondate apur batekin, auzia bideratzea bazegoen. Hitz politikak baino gehiago, ekintzak behar dira. **Duela gutxi Sanchez presidentek esan du badaudela lau eskumen bere ustez eskualdatu ezin direnak.**

Hori onartezina da. Guk borrokan jarraituko dugu eskumen horiek ekartzeko, eta, iristen ez ba-

dira, gobernu honek arazoak izango ditu EAJrekin. Guk ezin dugu onartu Espainiako presidentek esatea Gernikako Estatutua betetzeko ez dagoela.

EAEn, hiru ahaldun nagusiak eta hiru hiriburuetako alkateak EAJkoak dira, eta denak gizonezkoak. Argazki horrek kezkatzen zaituzte?

Hautagaiak aukeratzeko gure sistema oso irekia da, oso parte hartzailea; proposamenak oinarriek egiten dituzte, eta duela lau urteko emaitza hori izan zen. Egia da egin berri dugun entzute prozesuan gaia indarrez atera dela, baina, bestalde, egiten dugun guztia gure oinarriek ulertu egin behar dute; are gehiago, oinarriak dira aldaketa hori bultzatu behar dutenak. Ikusiko dugu hautaketa prozesuan zer gertatzen den; nik ezin dut ezer ziurtatu, EBBri ez dagokiolako prozesu horretan esku hartzea, baina espero dut gure jendea sentibera izango dela eta aintzat hartuko duela hori.



Guk ezin dugu onartu Espainiako presidentek esatea ez dagoela Gernikako Estatutua betetzeko.

«Ez gara gu [EAJ-PSE koalizioaz] beste alternatiba batzuk mahai gainean jartzen ari garenak.»

lukete, eta pentsatu beraiek direla gobernu hau iraunarazteko beharrik handiena dutenak, eta bazkideak errespetu handiagoz tratatu behar dituztela. Diagnostiko horretan bazkide guztiok gaitoz bat: gobernu hau oso zekena



MARISOL RAMIREZ / FOKU

«Ez da tentsio sindikaletarako garaia, elkarrekin lan egitekoa baizik»

G. Hemosilla Bilbo

Dudarik gabe, nazioarteko egoera korapilatsuak eta hortik eratorritako krisi ekonomikoak aztarna utziko dute datozen hilabeteetan. Andoni Ortuzarrek ere uste du udazkena bero datorrela, baina espero du erakundeek hartutako neurriek lagunduko dutela egoera leuntzen.

Aditu guztiek diote udazkena eta negua gogorak izango direla. Zuek bat zatozte iragarpen horrekin?

Badirudi aurreikuspen horretan denak datozela bat. Aldagai nagusia izango da Ukrainako gerraren bilakaera. Ikusiko dugu. Jaur-laritzak eta aldundiek neurri batzuk adostu dituzte, eta nik uste dut lagunduko digutela egoera gainditzen.

Lan eta gizarte arloan ere gatazkak areagotzea espero duzue?

Nik nahiko nuke kontrakoa gertatzea, eta mundu guztia kontziente izatea ez dela tentsio sindikaletarako garaia, elkarrekin lan egitekoa baizik. Egoeraren ondorio negatiboak leuntzeko neurriak hartu beharko dira, noski, baina norbait, etekin politiko edo sindikalak lortzearen, «zenbat eta okerrago, hobeto» esamoldeari atxikitzen bazaio, gaizki ibiliko gara.

Zer irizten diozu Pedro Sanchezek Pablo Gonzalez kazetariaren egoeraz esandakoari?

Nik uste dut auzi horretaz informazio gehiago behar dugula, eta jarduera diplomatiko handiagoa ere bai. Nik ez ditut egoeraren xehetasunak ezagutzen, baina, hain zuzen ere, horixe da kezkarria: hainbeste hilabete igaro oste-

an oraindik ez jakitea zehazki zer egozten dioten eta nolako frogak dauden. Nik ez dut alde aurretik juzgatu nahi, eta errespetuz jokatu nahi dut alde guztiekin, baina oraingo egoera, linbo moduko batean egote hau, ezia da luzatu, eta Espainiako Gobernuak gehiago egin behar du.

Euskararen gaia agenda politikoan dago? Euskaingintzako sektore batzuek zalantzak dituzte horren inguruan.

Nik uste dut euskararen alde gauden artean aspalditik bi joera daudela: Umberto Ecoren liburua parafraseatuz, *apokaliptikoak* eta *integratuak*, hots, hau pikutara doala diotenak eta ikusten dugunok, adibidez, nire eskualdean ni gazte nintzenez ez zela euskararik egiten eta gaur egun egin egiten dela, gutxi edo asko. Nik uste dut lehenengo baldintza dela datuak modu objektiboan hartzea, eta botila erdi hutsik edo erdi beteta ikusten dutenen pertzepzioetatik harago datu objektiboak erabiltzea eta hizkuntzaren benetako erronkak non dauden detektatzea: nire ustez, erabileran eta teknologia berrietan.

Beraz, ez duzu uste lehentasun politikoaren artean euskararena atzendurik gelditzen ari denik.

Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan zalantza gehiago ditut, baina EAEn behintzat ezin dugu ahaztu sistema instituzional ia guztia hizkuntzaren auzian zalantzarik ez duen jendearen esku dagoela. Lehen alderdiak eta bigarrenak gauzak argi ditugu, eta, gainera, bat gatoz euskararen inguruko kontu gehienetan; nik uste dut aukera hori baliatu behar dugula.



MARISOL RAMIREZ / FOKU

Eta itunak egitean, jarraituko duzue PSE-EE lehentasunezko bazkidetzat hartzen?

Ikusiko dugu zenbakiak zer ematen duten, baina, printzipioz, koalizio horrek egonkortasuna ematen die erakundeek, bat dator Espainiako Gobernuarekin dugun harremanarekin, eta herri honetako bi osagai ideologiko oso garrantzitsu biltzen ditu. Baina ikusiko dugu; ez gara gu beste alternatiba batzuk mahai gainean jartzen ari garenak.

PSE-EEK tentazioa izan dezake zenbait herritan bestelako akordioak egiteko?

Kontua da itunek nolabaiteko koherentzia izan behar dutela. Salbuespenak egon daitezke, baina gerrillan aritzea ez da onargarria: itun orokor bat baldin badago, logikoena da hori esparru guztietan errespetatzea.

Eta Nafarroan ikusten duzu PSNk UPNrekin ituna egiteko arriskua?

Nik uste dut zenbait faktoreren

araberakoa izango dela hori: PSOEek Madrilen zer jarrera hartzen duen auzi honetan, eta, bestalde, UPNk zer egiten duen. UPNk Navarra Suma koalizioaren aldeko hautua egiten badu, zaildu egiten du Alderdi Sozialistarekin ituna egiteko aukera. Bai-



Auzia iraganeko zauriak ez irekitzea da; ertzain izateagatik norbaiti jazartzea ez da onargarria»

na UPN bakarrik aurkeztuko balitz, nik uste dut amua botako liokeela PSNri. PSNn badirudi batzuk deseroso daudela bazkide batzuek ekartzen duten euskal osagaiarekin. Guretzat dezepzio handia da PSN euskararekin izaten ari den jarrera.

Mutrikuko eta Gasteizko gertaeren harira, arduradun politiko

askok EH Bildun jarri dute arreta. Benetan uste duzue EH Bilduk erantzukizunik baduela auzi horretan?

Guk ez dugu fokua horretan jarri. Guk herri hau ezagutzen dugu, badakigu arazo horretan osagai asko daudela, eta alkohola eta jai giroa ez direla munta txikienekoak. Auzia ez da nor dagoen horren atzean, guk ez baitugu uste ezker abertzaleak antolatutako kanpaina bat dagoenik; auzia da horrelakoak gertatzen badira, aurkako jarrera irmo eta zorrotza erakustea, inork pentsa ez dezan hori ekintza politiko bat dela eta jarduera politikoaren barruan sartzen dela, traukilkeria bat izan beharrean. Nik uste dut auzi honetan ezker abertzalea bere burua endokatzan ari dela, aski modu infantilean, denak hari eraso egin nahian ibiliko balira bezala, eta auzia ez da hori, iraganeko zauriak ez irekitzea baizik. Ertzain izateagatik norbaiti jazartzea ez da onargarria.